



TOLOSAKO UDALAREN ETA EUSKARAREN GIZARTE
ERAKUNDEEN KONTSEILUAREN ARTEKO

HITZARMENA

TOLOSAN EUSKARAREN ERABILERAREN ALORREAN
HAINBAT NORMALIZAZIO LAN LANKIDETZAZ
BURUTZEKO.

Tolosan, bi mila eta hamabosteko ekainaren lauan.

ELKARTURIK

Batetik, Ibai Iriarte San Vicente, N.A.N., 72.487.486-L, TOLOSAKO
UDALeko alkatea, haren izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala
ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Paul Bilbao Sarria, N.A.N., 16.052.125-B, EUSKARAREN
GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAren (hemendik aurrera Kontseilua)
izenean eta beronen ordezkari gisa.

Bi alderdiok, hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen dizkiote
elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

KONTSEILUA euskarak garapen osoa izatea helburu duten erakundeen
bilgunea dela, eta maila pertsonal, sozial eta ofizialean euskararen normalizazioa
edo berreskuratze osoa lortzea dela bere helburua. Lan hori erakunde
publikoekiko lankidetzan egiten du. Eta ildo horretatik, euskararen erabileraren



alorrean hainbat normalizazio-lan burutzen ari dela eta hauen guztiaren onuradun Tolosako herria ere badela.

KONTSEILUA irabazi-asmorik gabeko kultura-erakundea dela, onura publikoko izendatua eta lehentasunezko zat jotzen den jarduera egiten duena; eta komenigarria dela euskararen erabileraren normalizazioaren alorrean egiten duen lan eskerhari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta, bide batez, honen geroa ziurtatu eta sendotzea.

Arestian aipatutakoa horrela izanik, HITZARMEN hau sinatu dute, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmen honen helburua da KONTSEILUAK eta TOLOSAKO UDALAK, lankidetzan eta KONTSEILUAREN ardurapean, 2015. urtean burutuko dituzten euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bidez, ondoren azaltzen diren jarduerak eta normalizazio-lanak lagunduko ditu diruz TOLOSAKO UDALAK; eta KONTSEILUAK hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera burutuko ditu lanok.

Ekimen-zerrenda irekia da eta beste ekintza batzuk ere lankidetzan antolatu eta diruz laguntzeko aukera izango da, beti ere, TOLOSAKO UDALAREN eta KONTSEILUAREN artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua izanez gero.

Diruz lagunduko diren jarduera eta normalizazio-lanak hauek dira:

Euskalgintza trinkotu, aktibatu eta dinamizatzeko zereginen artean, lan-munduan eragiteko egitasmoak hartuko du nagusitasuna Tolosan. Honen baitan, eratze-egitura sortuko da (Mahai osatu: euskalgintza, udalak, sindikatuak, garapen-agentzia, lanbide-heziketako ikastetxeak. Kudeaketa bideratu), mintegia egingo da, eta enpresen sarea antolatzeari ekingo zaio. "Euskaraz bizi nahi dut" strategiaren barruan, berriz, dinamika ezagutarazi eta sustatuko da (euskarriak, euskalgintzaren ekimenak beronen aterkipean bideratzea, eskola-kirola...).

Aipatutako jarduera horiengatik Tolosako Udalak 5.000,00 €-ko diru laguntza emango dio Kontseiluari 2015ean, Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrak hala erabakita, Udaleko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordearen proposamenaren arabera.

HIRUGARRENA.- TOLOSAKO UDALAREN eta KONTSEILUAREN ordezkariak osatutako lan-taldeak bilera egingo du urtero. Batetik,



hitzartutakoaren jarraipena gauzatzeko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objektibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeko. Eta bestetik, dokumentu honetako bigarren klausulan ere aipatzen den moduan, hizkuntza-normalizazioaren alorrean aurrerabideak aztertu eta beharrezkoak izan daitezkeen egitasmo gehigarriak abian jartzen saiatzeko.

LAUGARRENA.- Aipatutako diru-laguntza honela emango da:

Hitzarmena sinatu eta gero, % 60; eta gainontzekoa, hau da, % 40, abenduko lehen hamabostaldian. Diru-laguntzaren lehen zatia jasotzeko, KONTSEILUAK aurkeztu beharko du 2015eko aurreproiektu eta aurrekontuaren txostena, zergak eta gizarte-segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriekkin batera. Bigarren zatia jasotzeko, berriz, aurkeztu beharko ditu Tolosako Udaletxean honako agiri hauek: diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, zergak eta gizarte-segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak, eta egindako gastuak zuzitzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte elkartutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Ibai Iriarte San Vicente


Alkatea 

Paul Bilbao Sarria


Kontseiluaren Idazkari Nagusia 
KONTSEILUA

Nire aurrean, idazkaria


Jose Luis Unanue Ugalde

